

## BEZEROAREKIKO HARREMANA

Oreka Zalditegi Terapeutikoak atak zabalik izango ditu bertara gerturaten den edonorentzat, horrela gertuko harreman zuzena sustatuko dugu.

Bestalde, web orrialde bat ere badugu, interesa duen edonork, gurekin kontaktuan jartzeko aukera izanez, hala nola, email eta telefono zenbakia bertan aurki ditzake.

Honez gain, ikastetxe eta enpresa ezberdinetara joko dugu, gure lanaren nolakotasuna aurkeztuz, norbanakoaren eta talde lanarengan dituen onurak azalduz. Honela banakoaren, taldearen eta erakundearen errendimendua areagotuz.



Era berean, ongizatearekin erlazionatutako beste hainbat zentru eta profesionalekin elkarlanean aritzen gara, eskuhartze mota ezberdinak erabiliz gure helburu eta asmoak lortzea ahalbidetzen duelako.

Gure helburua bezeroen ongizatea ahalbidetzea eta era berean zaldien mundua maitatzea denez, egiten diren saio ezberdinez gain, hilabete amaiera bakoitzeko ekintza bereziak burutzen ditugu, esaterako, jolas tailerrak, bazkari bat, mendi ibilaldiak,...

